



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

ESKOLAN FAMILIEN PARTAIDETZA BULTZATZEKO HEZKUNTZA PRAKTIKA: TALDE ELKARRERAGILEAK

Egilea: Irati Lopez Arriola

Zuzendaria: Igone Aróstegi Barandica

Leioan, 2015eko ekainaren 2an

© 2015, Irati Lopez

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. MARKO TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA	5
1.1. Hezkuntza inklusiboaren eredua eta ezaugarriak.....	5
1.1.1. Interakzioa eta ikaskuntza	6
1.1.2. Hezkuntza komunitatearen parte-hartzea	8
1.2. Familien parte-hartzea eskolan	10
1.2.1. Zein motatako parte-hartzea izan du familiak historikoki?.....	10
1.2.2. Eskola inklusiboak zein motatako familiaren parte-hartzea eskatzen du?... ..	11
1.3. Familiaren partaidetza bultzatzen duen arrakastazko hezkuntza praktika:TTEE.	12
1.3.1. Talde elkarreragileak.....	12
1.3.2. Familiaren papera TTEEetan eta emaitza zientifikoak	14
2. METODOLOGIA.....	15
2.1. Ikerkuntzaren helburuak	15
2.2. Ikerkuntza garatzeko prozedura.....	16
3. LANAREN GARAPENA	16
3.1. Ikastetxe eta ikasgelaren ezaugarriak.....	16
3.1.1. Familien partaidetza bultzatzeko prozesua	17
3.1.2. Saioaren diseinua eta garapena	17
3.1.3. Eztabaida taldea Talde Elkarreragileetan parte hartu duten boluntarioekin...19	
4. ESKU-HARTZEAREN EMAITZAK ETA BALORAZIOA	20
4.1. Behaketaren emaitzak	20
4.2. Saioaren ebaluazioaren datu garrantzitsuenak	21
4.3. Ikerkuntzaren gorabeherak.....	23
5. ONDORIOAK.....	24
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	25
ERANSKINAK	

1. Eranskina: Talde Elkarreragileen saioaren balorazioa egiteko txantiloia
2. Eranskina: 1.boluntarioak saioaren inguruan betetako balorazio txantiloia
3. Eranskina: 2.boluntarioak saioaren inguruan betetako balorazio txantiloia
4. Eranskina: 3.boluntarioak saioaren inguruan betetako balorazio txantiloia
5. Eranskina: 4.boluntarioak saioaren inguruan betetako balorazio txantiloia

ESKOLAN FAMILIEN PARTAIDETZA BULTZATZEKO HEZKUNTZA PRAKTIKA: TALDE ELKARRERAGILEAK

Irati Lopez Arriola

UPV/EHU

Lan idatzi hau familien eta komunitatearen partaidetza bultzatzean oinarritzen da, horretarako arrakastazko hezkuntza praktika baten proposamena eta honen aplikazioa Lekeitioko R.M. Azkue ikastolan ezagutzera ematen delarik, Talde Elkarreragileak. Hezkuntza inklusiboaren testuinguruan eta arrakastazko praktika honek jarraitzen duen metodologia aztertuta, lortutako emaitzek haurrak era heterogeneoan taldekatzeak eta komunitateak zein familiak ikastetxean inplikatzek dituen onurak egiaztatzea ahalbidetzen digute.

Familia, komunitatea, partaidetza, interakzioa, talde elkarreragileak

Este trabajo se centra en impulsar la participación de la familia y de la comunidad y para ello se da a conocer una propuesta de éxito educativo y su aplicación en la ikastola R.M. Azkue de Lekeitio, los Grupos Interactivos. Analizando el contexto de la educación inclusiva y la metodología que sigue esta práctica, los resultados obtenidos del agrupamiento heterogéneo de los niños y la implicación en el centro tanto de la comunidad como de la familia nos confirman los beneficios obtenidos.

Familia, comunidad, participación, interacción, grupos interactivos

This project is based on impulse the participation of both family and community in the field of education and for this, a successful approach and its development, the Interactive Groups, are given in the ikastola R.M. Azkue of Lekeitio. Having analyzed the inclusive education and the methodology that follows this practice, the results obtained from the heterogeneous group of children and the implication in the centre of both community and family confirms the profits obtained.

Family, community, participation, interaction, interactive groups

SARRERA

Haurren hezkuntza prozesuan eragin handiena duten eragileak familia, eskola eta haien hurbileko eremua dira. Hori horrela, beharrezkoa da eragile hauek elkarlanean aritzea eta haien artean ematen diren harremanak egokiak izatea, betiere errespetuan oinarrituak, jakina baita eskolak eta familiak harreman egokiak izanez gero, haurren ikaskuntza arrakastaz beteko dela. Hori erakutsi digute gai honen inguruan egin diren ikerketa ezberdinek, “el rendimiento escolar aumenta cuando los niños y niñas se exponen a una mayor interacción educativa y cultural con otros agentes sociales, especialmente con los miembros de su familia” (INCLUD-ED Consortium, 2011:70). Hala ere, eta kontraesankorra badirudi ere, familien inplikazioa hezkuntza esparruan nahiko gai eztabaidagarria da, eta zoritxarrez, gaur egun gutxi ematen dena gure inguruan. Baina, haurren hezkuntza prozesua eskolaren lana soilik ote da? Argi dago gaur egun dugun egoera aldatu beharra dagoela, eta familia eta ikastetxeen arteko harremana oztopatzen dituzten mugak hautsi, alabaina, “la participación de la comunidad en los centros escolares mejora el rendimiento académico del alumnado” (INCLUD-ED Consortium, 2011:76).

Bestalde, historiari errepasso txiki bat eginez aditu askok erakutsi digute familien partaidetzari ez zaiola inolako garrantzirik eman urte hauetan. Hori horrela, hezkuntza arrakasta lortu nahi baldin badugu familia, komunitatea eta ikastetxeak elkarrekin lanean aritu behar direla goraipatzen dute gai honen inguruan azterketak egiten dabiltzan jakintsuek. Izan ere, “la extensión de la oferta educativa a los distintos agentes sociales [...] que tienen relación con el alumnado es una medida esencial y necesaria, si pretendemos que la escuela y la familia trabajen en una misma dirección” (INCLUD-ED Consortium, 2011:69). Arlo honen inguruan egin diren ikerketak, INCLUD-ED proiektua (2006-2011) esaterako, eta horietan lortutako datuak erreferentziatzat hartu eta eskola eta familiaren arteko harremanek ikasleari, ikastetxeari eta gainontzeko eragileei dakarzkien onurez mintzatuko naiz lan idatzi honetan. Gainera, egungo egoera aintzat hartuz galdera ezberdinei erantzuna aurkitzen ahaleginduko naiz, *familiek eta eskolak zergatik egin behar dute lan batera? Ze onura dakarzkie instituzio biei? Nola parte-har dezakete familiek eskolako bizitzan? ...* Horretarako eskola inklusiboa eta honen alderdi ezberdinak hartuko ditut kontuan, historiari begirada txiki bat botatzen diodan eta gaur egungo egoerarekin alderatzen dudana bitartean.

Bestetik, Gradu Amaierako Lan hau atal ezberdinetan banatua egongo da, atal bakoitzak bere espazioa eta garrantzia izango dituelarik. Horrela, jarraian marko teorikoan zentratuko gara, eta horretarako aditu ezberdinen iritziak kontuan izanez hezkuntza inklusiboa eta honek barne hartzen dituen hainbat puntu azalduko dira. Era berean, ikastolan proposamen inklusiboa bezain berritzailea martxan jarriz familien partaidetza bultzatzea eta honek dakartzen onurak azaleratzea izango da nire helburu nagusia. Horretarako, familiak eskolako bizitzan inplikatzera bultzatzen dituen arrakastazko hezkuntza praktika baten diseinua eta honen aplikazioa Lekeitioko R.M. Azkue ikastolan emango dira ezagutzera, Talde Elkarreragileak hain zuzen ere. Praktika honek familiei eskolan parte-hartzeko bidea ematen die, gela egoera interaktibo aberatsak sortzeko antolatzen dugun bitartean. Lanak aurrera egin ahala diseinatutako proposamenaren datuen emaitzak eta ondorioak azaleratuko ditut.

1. MARKO TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA

1.1. Hezkuntza inklusiboaren eredua eta ezaugarriak

Gaur egungo munduko hezkuntza sistema guztien erronka nagusia haur eta gazteei kalitatezko hezkuntza eskaintzea da. Erronka hauen aurrean *eskola inklusiboa* sortzearen ideia ematen da ezagutzera, honek kalitatezko hezkuntza eskaintzen dielarik haur guztiei, hau da, guztiek behar diren emaitza akademiko zein balioak garatzea. UNESCOk 2005ean era honetan definitu zuen eskola inklusiboa:

La educación inclusiva [...] permite abordar y responder a la diversidad de las necesidades de todos los educandos a través de una mayor participación en el aprendizaje, las actividades culturales y comunitarias y reducir la exclusión dentro y fuera del sistema educativo [...]. El objetivo de la inclusión es brindar respuestas apropiadas al amplio espectro de necesidades de aprendizaje tanto en entornos formales como no formales de la educación (UNESCO, 2005:14).

Ikuspegi honek argi erakusten du eskola inklusiboa eskubidea izanik, honen helburua historikoki gizartetik baztertuak izan diren taldeen esklusioa deuseztatzea dela, sexua, etnia edota arraza bezalako ezaugarriak alde batera utziz. Honen haritik, Echeita eta Ainscow (2011) edota Stainback, W. eta Stainback, S. (1992) adituek esaterako, eskola inklusiboaren printzipio edota ezaugarriak definitu zituzten. Hauek inklusioa *prozesua* dela diote, eta ikasleen aniztasunari erantzunak bilatzeko bide bezala ulertu behar dela.

Inklusioak, bestetik, *ikasle guztien presentzia, parte-hartzea eta arrakasta* bilatzen ditu, haur guztiek emaitza berberak lortzeko eta era berean, *oztopoak identifikatzea eta deuseztatzea* zehazten ditu, muga hauek betiere eskubideak eragozten dituztenak direlarik, hezkuntza inklusibo baterako eskubidea. Honetaz gain, inklusioak *arreta berezia jartzen du baztertuta edo eskola porrota izateko arriskuan dauden haurretan.*

Ikasgela inklusiboa, bestalde, bertan parte-hartzen dutenen arteko *errespetuzko eta berdintasunezko harremanetan* oinarritzen da. Halaber, haurrek laguntza gela arruntean bertan jasotzen dute eta *curriculum* gela barruko haurren beharrian eta gaitasunei egokitzen zaie. Era berean, eskola inklusiboak *denon parte-hartzea bultzatzen* du, hezkuntza, komunitate bezala ulertzen delarik. Hau kontuan hartuta, inklusioak *kultura, politika eta hezkuntza praktiken berrantolaketa* eskatzen du, hau da, inklusioaren biderantz joateko dagoen planteaketa birplanteatzea. Hori horrela, eskola inklusiboa sortu nahi baldin bada, honek ikuspegi eraldaketa eskatzen du, curriculumean, antolaketan eta zerbitzuetan. Horren ondorioz, ikastetxeak malgua izan beharko du aldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Hezkuntza inklusiboa oro har eskubidea da, haur eta gazte guztiek eduki beharreko eskubidea, bakoitzak dituen ezberdintasunak onartuz. Horretan oinarritzen da UNESCO ondorengoa dioenean:

Acoger a todos los niños, independientemente de sus condiciones físicas, intelectuales, sociales, emocionales, lingüísticas u otras. Deben acoger a los niños con discapacidad y bien dotados, a niños que viven en la calle y que trabajan, niños de poblaciones remotas o nómadas, niños de minorías lingüísticas, étnicas o culturales y niños de otros grupos o zonas desfavorecidas o marginadas (UNESCO, 1994:59).

Ikuspegi honek aniztasunaren onarpen honetan diferentziak antzeman eta txalotu behar direla erakusten du, ikasle guztiak ezberdinak direla onartu; denek dituztela gaitasun, motibazio, jatorri edo historia diferenteak, eta horren arabera eta horrekin batera lan egin behar dela, aniztasuna era berean aberastasuna baita, hori goraiatzen du Ainscow-k; “mejorar la educación inclusiva significa aprender a cómo vivir con la diferencia y, en efecto, aprender a cómo aprender de la diferencia” (Ainscow, 2012:49).

1.1.1. Interakzioa eta ikaskuntza

Arrakasta handiena izan duten hezkuntza praktikek (INCLUD-ED, 2006-2011) erakutsi dute haurren ikaskuntza gainontzekoekin izaten dituzten interakzioen menpe dagoela,

hau da, gelan bere gelakideekin eta irakaslearekin, etxean bere familiarekin, eta orokorrean komunitateko pertsona helduekin espazio ezberdinetan izaten dituzten interakzioen menpe (Aubert, Flecha, García, Flecha, Racionero, 2008). Interakzio hauei esker hurrek gero eta pentsamendu kolektiboagoa garatuko dute, era kolektibo batean pentsatzen ikasiko baitute, ondorioz, mundua eskuratu eta hautemango dute, komunitateko kide diren neurrian. Gainera, interakzio horiek mesede egingo die haien garapenari, egoera berrien ulermenari edota arazoan ebazpenerako irtenbideak aurkitzeari.

Bestalde, hurrek haien artean izaten dituzten interakzioak ezinbestekoak izango dira alabaina, ikasgai batzuk haien artean soilik ikas ditzakete, helduen eraginetatik urrun. Helduekin izaten dituzten interakzioetan aldiz, elkarriketetan parte hartuz ulermena garatu eta komunikaziorako gaitasunak garatzen dituzte, ezagutza ezberdinak elkar banatu eta elkarrekin ezagutza garatzeko baliabide baliotsuak bereganatzen dituzten bitartean (Mercer, 2001).

Interakzioek hurren ikaskuntzan daukaten garrantzia ukazina izanik, aditu asko dabilta eskolako ikaskuntza interakzioak aztertzen eta guztiek hartzen dute Vygotsky oinarritzat. Honen arabera, hurren ikaskuntza prozesuan izugarriko garrantzia dute gainontzeko hurrek, komunitateko pertsona helduek eta irakasleek, izan ere, “lo que un niño es capaz de hacer hoy con ayuda de alguien, mañana podrá hacerlo por sí solo” (Vygotsky, 1996:134). Halaber, Vygotsky-k argi erakusten du haurra bere garapenean gorengo mailara gainontzeko pertsonekin interakzioan arituz soilik iritsiko dela. Era berean, Vygotsky (1996) eta Mercer-en (2001) aburuz, interakzioen prozesu honetan hizkuntzak berebiziko garrantzia du, berau baita pertsonen artean harremanak eta akordioak lortzeko baliabidea, baita jardueren muina eta hurrei pentsamendua garatzea ahalbidetzen diena ere.

Interakzioen bide honetatik jarraituz, ikaskuntza dialogikoa dugu, berdintasunean oinarritutako elkarriketan oinarritzen dena, eta ikaskuntza instrumentala sustatzen duen interakzioetan sortzen dena, betiere berdintasunaren eta ezberdintasunaren baloreak aberastasuna izanik. Era berean, ikaskuntza dialogikoan elkarriketaren bidez partaide guztiak ikastun bihurtzen dira (Aubert et al., 2008).

Laburbilduz, urteek aurrera egin duten arren ikus daiteke hainbat aditu bat datozela, guztiek nabarmentzen baitute dialogoak eta interakzioak hurren ikaskuntza eta

garapenerako ezinbestekoak direla. Horrela, Vygotsky-k interakzioen bitartez garapen hurbileko eremua aztertzea posible dela dio eta Rogoff-en arabera, haurren garapen kognitiboa eremu sozialetik banaezina da. Bruner-ek, bestetik, interakzio prozesuaren bidez haurrek kultura barneratzen dutela dio eta Wells-en iritziz, haurrek dialogoaren bitartez ezagutza ikertzen eta eraldatzen dutela (Aubert et al., 2008).

Irakaskuntza eta ikaskuntza teoria berritzaileek argi izan behar dute egungo gizartea etengabe aldatzen ari dela, beraz, hauek ere aldaketa prozesu horretara gehitu behar dira, izan ere, testuinguruan aldaketak gertatzen direnean honek ikasteko prozesua aldatuko du, hortaz, irakaskuntza, horregatik, hezkuntza teoriak dinamikoak eta aldakorak izan behar dira.

1.1.2. Hezkuntza komunitatearen parte-hartzea

Esan bezala, eskola inklusiboak komunitateko kide guztien partaidetza eta inplikazioa bultzatzen ditu. Honen haritik, familiak eta komunitateak ikastetxearen garapenean, diseinuan eta haien seme-alaben hezkuntzan parte-hartzeak garrantzia handia du eta zentzu honetan, gutxika bada ere, dialogoan eta adostasunean oinarrituta hartzen dira erabakiak, pausu hau ezinbestekoa izanik eskola porrota gainditu eta gizartean hobeto bizitzeko (Aubert et al., 2008). Hezkuntza komunitatearen parte-hartzeak, bestetik, pentsamendua garatzeko baliabide anitzak eskaintzen ditu. Esaterako, egoera eta esperientzia berdina konpartitu duten kideek denborak aurrera egin ahala konpartitu duten esperientzia hori gogoratu egingo dute, bertan konpartitu dituzten historia, ezagutza edota helburu horiek norberaren esfortzu eta ekintzei zentzua aurkitzeko baliabide izango direlarik.

Bestalde, egindako ikerketa askok erakutsi dute komunitatearen eta eskolaren arteko harremanak beharrezkoak eta ezinbestekoak direla ikasleek arrakasta izateko haien eskola errendimenduan eta ikaskuntzan, alabaina, “los niños y niñas solo alcanzan niveles elevados de desarrollo cognitivo cuando interaccionan con personas adultas” (INCLUD-ED Consortium, 2011:72). Hori horrela, irakasleek haurrek ikaskuntza esanguratsua lortzeko eta era berean komunitateko kideekin harremanak izateko abaguneak sortu beharko lituzkete, honek haurren errendimendu akademikoan onurak ekarriko dituelarik. Esate baterako, komunitateko kideak ikastetxean inplikatzeko haurren irakurketa-idazketa gaitasunean onurak sortzen ditu, baina horrelakorik gertatu ezean, gaitasun hori haurren familien hezkuntza mailaren menpe geratzen da. Ondorioz,

haurrek komunitateko kideekin harremanak izateak ikaskuntza eta errendimendu akademikoa hobetzea dakar, horregatik, ezinbestekoa izango da haurren hezkuntza prozesuan eragina duten eragileen formazioa aintzat hartzea, eta ez soilik irakasleena.

Hori horrela, eskolak aukerak eskaini behar dizkio komunitateari bertan parte hartu eta era berean elkarlanean aritzeko. Elkarlan horrek eskola eta etxearen arteko koordinazioa izango ditu oinarri eta onurak ekarriko dizkio ikasleari bere errendimenduan, batez ere gutxiengo kulturalen eta ezgaitasunak dituztenen kasuan. Gainera eta datuen arabera, komunitateko kideen partaidetzak ikasleen artean sor daitezkeen harreman bortitzak ekidin ditzakete, generoari edota kultura minorizatuari dagokionez adibidez, haurrek eduki ditzaketen estereotipoak eta aurreiritziak gainditzen laguntzen baitie. Era honetako ikuspegiekin berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituzte haurrek txikitatik, desberdintasunak gaindituz eta emaitza akademikoak hobetuz (INCLUD-ED Consortium, 2011).

Hau kontuan izanda, asko dira komunitateko kideak ikastetxeetan inplikatzeak dauden bideak, hala nola Ikas Komunitateak. “Ikas Komunitatea gaur egungo informazioaren gizarteak hezkuntzari dakarzkion eskakizun eta betebeharrei erantzun egokia eskaintzen duen Hezkuntza Proiektu Integrala da” (Lekeitioko eskola publikoa, 2008:2). Proiektu honek ikasteko eta irakasteko ilusioa piztu nahi ditu, haur guztiek ikasteko eskubidea izanez eta haien jatorriaren ondorioz bere burua baztertutzat ikus dezatenaren ideia alde batera utziz. Era berean, eskolak egin behar ezberdinen erantzukizuna har dezake, esaterako, gainontzekoentzako beharrezko tresnak eskura jarri, aldaketaren alde eta desberdintasunak murriztu daitezzen lan egin eta komunitateko kideen partaidetza aktiboa eta kritikoa bultzatu, betiere elkarrizketa sustatuz eta guztien arteko errespetua eta desberdintasunak aintzat hartuz.

Laburbilduz, familia, eskola eta komunitatearen arteko harremanak praktika inklusiboak era egokian garatzeko laguntza garrantzitsua izan daitezke, betiere harreman horiek errespetuan eta koordinazioan oinarritzen baldin badira. Aldiz, komunitatea eta familia eskolatik urrun mantentzen baldin badira praktika inklusiboen garapenak oztopoak izango ditu. Azken batean, hezkuntza sistema inklusiboan garrantzitsuena familia eta komunitateko kideen rola onartzea da eta era berean haien iritzi eta ikuspuntuak errespetatzea (UNESCO, 1994).

1.2. Familien parte-hartzea eskolan

Familia eta eskola bi instituzio konplexu dira, familia bakoitza desberdina baita eta ikastetxe bakoitzak bere berezitasunak baititu. Baina ezin da ahaztu bai familia baita eskola ere haurren ikaskuntzan zuzenean eragiten duten instituzioak direla, hortaz, bien arteko kolaborazio eta erlazioak sustatzea ezinbestekoa izango da.

1.2.1. Zein motatako parte-hartzea izan du familiak historikoki?

Jakina da familia haurraren sozializazio eragile nagusia dela eta ondorioz, bere hezkuntza prozesuan eragin handiena duena. Baina familiarekin batera eskola ere eragile garrantzitsua da, hortaz, ezinbestekoa da familia ikastetxearekin harremanetan egotea eta elkarlanean aritzea, eskolan gertatzen denak etxean ere garrantzia duelako. Ondorioz eta haurraren eragin handiena duten bi eragileak elkarlanean aritzean, haurrak testuinguru bietatik jasoko dituen mezuak berdinak izango dira, bere ikaskuntzan arrakasta lortuz, “los niños aprenden mejor cuando hay armonía entre las expectativas y las oportunidades de aprendizaje en la escuela y el hogar. Cuando los padres y los maestros trabajan juntos, el desarrollo del niño puede apoyarse y sus necesidades pueden satisfacerse más plenamente” (UNESCO, 2004:89).

Horrez gain eta historiari begiratu, familien partaidetza ez da beharrezkoa izango balitz bezala hartu eta hortik dator gaur egun oraindik ere familien inplikazioa eskolan gai korapilatsu bezain aldapatsua izatea. Familiak eskola eta haien arteko erlazioak nolakoak izan behar direnaren inguruko iritziak izaten dituzte, normalean haien eskola garaietan oinarrituz. Horrela eta haiek dituzten ezagutzetatik abiatuz, gutxika inplikazio mota eraikitzen doaz horretan gaizki-ulertuak, arazoak, gatazkak edota beste aldetik konplizitateak sortuz (Garreta, 2010).

Bestalde, eta urteetan ikusi izan den bezala, familien parte-hartzea oztopatzen duen faktore bat irakasleen eta gurasoen jarrerak izan dira. Irakasleen jarrerari dagokionez, irakasleak profesional bezala, autonomia eskatzen du eta mesfidati agertzen da gurasoen parte-hartzeari dagokionez, haien lana zaildu eta haien profesioa zalantzan jartzen dutenaren ustea izaten dutelako. Gainera, irakasleek gurasoen diktaduraren menpe bizi direnaren sententzia izaten dute, gutxietsita, txarto tratatuta, ... sentitzen baitira. Gurasoek, aldiz, irakasleek ulertzen ez dietenaren sententzia izaten dute, eta irakasleen autoritatearen aurrean gutxiago izango balira bezala sentitzen dira (García-Bacete, 2003).

1.2.2. Eskola inklusiboak zein motatako familiaren parte-hartzea eskatzen du?

Teoria eta ikerketa ezberdinek erakutsi dute familien partaidetzak mota askotako onurak ekar ditzakeela bai eskolari baita haurren hezkuntza prozesuari ere. Hori horrela, Martínez-González-en (1996) arabera, alde batetik haurraren eragin positiboa izango du, errendimendu akademikoa eta gelako zereginetarako jarrera eta parte-hartzea hobetzeaz gain, jarrera eta auto-estimua maila altuagoak lortuko baititu haurrak. Gainera, hezkuntza bereziko programen eskolatzeak ere behera egiten du, baita eskola porrotaren tasak ere. Beste aldetik, onurak irakasleek ere jasotzen dituzte, gurasoen aldetik harremanetarako eta irakaskuntzarako gaitasuna onartzen baitzaie, baina ez hori bakarrik, zuzendari taldeak ere gehiago baloratzen du irakaslearen jardura edo gelako lana. Horrez gain, irakasleek haien profesioarekiko asetasuna sentitzen dute eta konpromiso gehiago hartzen dute lanari dagokionez. Gurasoek izaten dituzten onuretan zentratuz, eskola programen ulermena handitu eta haurren hezkuntzan beraien rola gehiago baloratzen dute, haurrekiko komunikazioa hobetuz. Gurasoei haien hezkuntza eraikitzekeo motibazioa handitzen zaie eta guraso bezala trebetasunak garatzen dituzte.

Argi dago familien partaidetzak onurak dakartzala arlo ezberdinetan eta eragin positibo hauek jasotzen dituztenak hainbat izaten direla, baina erlazio hauek era egokian garatu daitezkeen, hainbat dira kontuan hartu beharreko faktoreak. Hala nola, ikastetxearen espazioa, eskolaren antolakuntza, familien jarrerak, komunikazio bideak eta lan egiteko dinamika eta irakasleriaren eta ikastetxekeo beste kide batzuen jarrera, guzti hauek eragina izango dutelako etorkizunean sortuko diren harremanetan (Garreta, 2010).

Bestetik, INCLUD-ED proiektuaren emaitzetako bat familien parte-hartze mota ezberdinen identifikazioa izan da, 5 izanik ematen diren parte-hartze motak, bakoitzak bere ondorioak izanez haurren bizitza akademikoan (INCLUD-ED Consortium, 2011). Lehenengoari dagokionez, *parte-hartze informatiboa* da eta hemen, familiek eskolako jardueren, ikastetxekeo funtzionamenduaren eta hartu diren erabakien inguruko informazioa jasotzen dute, hortaz, familiek ez dute ikastetxekeo erabakitze-prozesuan parte-hartzen eta bilerak egiten dira gurasoei erabaki horien inguruan informatzeko. Bigarren parte-hartze mota *kontsulta parte-hartzea* da eta familiek erabakiak hartzeko botere gutxi dute eta partaidetza familiei kontsultatzean oinarritzen da. Hirugarrena, *parte-hartze erabakitzaileria* da eta komunitateko kideek erabakiak hartzeko prozesuan parte-hartzen dute, adibidez ikaskuntzan eta ebaluazioan. Hauek ikastetxekeo errendimendua gainbegiratzen dute, lortzen dituzten hezkuntza-emaitzak aztertuz.

Laugarrena, *parte-hartze ebaluatzailea* da, eta haurren hezkuntza prozesuan parte-hartzen dute, haien prozesuaren ebaluazioan lagunduz, baita ikastetxeko ebaluazio orokorrean ere. Azkena, *hezkuntza parte-hartzea* litzateke eta haurren hezkuntza jardueretan parte-hartzen dute, bai eskola ordutegian baita hortik kanpo ere. Gainera, hezkuntza programa ezberdinetan ere parte-hartzen dute, haien beharrezan erantzunak emanez.

Aipatutako 5 parte-hartze mota hauetatik eta ikerketek erakutsi dutenaren arabera, azkeneko hirurak dira onuragarrienak, *parte-hartze erabakitzailea*, *parte-hartze ebaluatzailea* eta *hezkuntza parte-hartzea*, familien eta komunitatearen inplikazioa bermatu eta ikasleen ikaskuntzan ondorio positiboak ekarriz, eskola arrakasta bermatzen dutenak baitira (INCLUD-ED Consortium, 2011).

Familiak eskolan inplikatzeko aldiz, ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait, denbora eskatzen duen prozesu luzea da. Prozesu horretan konfiantzazko erlazioak sortzea ezinbestekoa izango da irakasle eta familien eta ikastetxea osatzen duten gainontzeko kideen artean, horrela dio UNESCO-k “en el largo plazo, esta construcción de confianzas mutuas producirá un sentido de apropiación y pertenencia que hacen posible que la familia sea un aliado de la escuela en el pleno sentido de la palabra” (UNESCO, 2004:90).

1.3. Familiaren partaidetza bultzatzen duen arrakastazko hezkuntza praktika: TTEE

1.3.1. Talde elkarreragileak

Hainbat ikerketek erakutsi dute haurrak modu heterogeneoan taldekatzeak eragin positiboak dakartzala, izan ere, ikasgelan antolakuntza egokia dagoenean, ezgaitasuna duen ikasleak aukera handiagoak izango ditu interakzioetarako, emaitza akademiko hobetoak lortuko ditu, bere auto-estimua gora egingo du eta harreman hobetoak eta giza gaitasunak garatuko ditu, etorkizunerako autonomia handiagoa garatzen duen bitartean. Halaber, errendimendu ezberdina duten haurrak elkarrekin lan egiteak ez du gainontzekoen ikaste erritmoa moteltzen eta aberasgarria da talde osoarentzat, ikaskuntza aukera berriak sortzen baitira. Baina onurak ez dira soilik errendimenduan nabaritzen, alabaina, berdinen arteko harremanak errespetua, solidaritatea eta

aniztasunaren onarpena sustatzen ditu, baita jarrera eta balore positiboak ere (INCLUDED Consortium, 2011).

Taldekatze heterogeneo hauen barruan Talde Elkarreragileak aurkitzen dira, arrakastazko praktika izanik. Talde hauek ikasgela 4-5 hurrez osaturiko talde txikietan banatzean oinarritzen dira, ikasgelaren ratioaren arabera eta modu heterogeneoan (sexua, etnia, ikas gaitasunak, adina, ...), helburua haurren ikaskuntza eta haien arteko harremanak sustatzea izanik. Talde bakoitzak heldu bat izango du dinamizatzaile lanetan arituko dena; senidea, praktiketako ikaslea, komunitateko kidea ... eta berau izango da jarduera gidatuko duena.

Bestalde, saioak 60 minutu iraungo du, jarduera bakoitzak 15-20 minutu iraungo dituelarik. Horrela, haurrak jarduera guztietatik pasatuko dira errotazio sistemaren bidez, heldua aldiz, jarduera berdinean finkaturik geratuko da. Horrez gain, gelako tutorea izango da saioa eta jarduerak prestatu eta era berean boluntarioei jakinarazi eta azaltzeaz arduratuko dena, hortaz, bera izango da saioa dinamizatuko duena, hau da, denborak koordinatu, zalantzak argitu eta (Valls eta Kyriakides, 2013). Gainera, pertsona nagusien koordinaketaz ere tutorea arduratuko da eta gelan gertatzen denaren arduraduna izango da. Ebaluaketari dagokionez, gelan parte-hartzen duten kide guztiak entzun ondoren tutoreak egiten du. Hemen, ikasleei zein erabilitako material eta estrategiei buruzko datuak batzen dira eta ikasketa instrumentalak eta sozialak ebaluatzen dira.

Bestetik, Talde Elkarreragileek inklusioa eta taldean integratzea bultzatzen dute, jardueretan parte-hartzea erraztuz. Gainera, elkartasun eta laguntzeko jarrerak handitzen dituzte hurrek, taldeetan sortu daitezkeen arazoak errazago konponduz eta era berean haurren motibazioak gora egiten du, taldeko martxa jarraitzen ahalegintzen baitira.

Talde Elkarreragileak inklusiorako praktika gisa uler daitezke, ikasgela tradizionalen eta homogeneoen mugak gainditzen baitira. Halaber, gutxietsita dauden haurren ikaskuntza prozesuak hobetzen dira, ez dute segregazioaren edo hezkuntza maila jaistearen bidea hartzen eta emaitza akademikoak hobetzen dira. Horrez gain, Talde Elkarreragileak berdinen arteko elkarriketan eta laguntzan oinarritzen dira, harreman hauek gelan dauden helduen partaidetzarekin hobetzen direlarik. Talde hauek familiek haien seme-alaben hezkuntza prozesuan parte-hartzeak duen garrantzia izaten dute kontuan, gela

barruan sortu daitezkeen interakzio ezberdinak aprobetxatuz (Valls eta Kyriakides, 2013).

1.3.2. Familiaren papera TTEEetan eta emaitza zientifikoak

Talde Elkarreragileen arrakasta frogatua geratu da egin diren ikerketa ezberdinetan, eta INCLUD-ED proiektuaren arabera, mota honetako talde heterogeneoek ikaskuntza instrumentala garatzeaz gain, garapen emozionala eta ikaskuntzarako baloreen garapena ere hobesten dute. Gainera, talde hauek ikaskuntza kooperatibotik haratago doaz, ikaskuntza dialogikorantz bidea eginez eta familiak eta komunitateko kideak ikaskuntza prozesuan inplikatuz (Aubert et al., 2008). Era berean, gelan baliabide pertsonal gehiago egotean hurrek behar duten laguntza jasoko dute, eta interakzio gehiago egoteko aukera handituko da, ezinbestekoa ikaskuntza arrakastaz emateko. Horrela, INCLUD-ED Consortium-ek (2011) aipatzen duen bezala, hurrek haien ingurukoekin izaten dituzten elkarrizketa eta interakzioen bidez ikasiko dute. Hortaz, aditu ezberdinak bat datozela ikus daiteke, Vygotsky, Wells, Rogoff eta Bruner-ek ere interakzioaren eta elkarrizketaren garrantzia azpimarratzen baitute.

Bestetik, familiako kideek Talde Elkarreragileetan izaten duten papera oso garrantzitsua izango da, dinamizatzaile lanetan arituz haurren artean ematen diren interakzioak aberasgarriak izatearen ardura izango dutelako, eta ondorioz, ikaskuntzaren hobekuntzarena. Horrela, funtzio ezberdinak izango ditu taldearen barruan, ekintza aurkeztu eta dinamizatzea, ikasleen arteko interakzioa, laguntza eta partaidetza bultzatzea, laguntza eskaintzea eta saioaren bukaeran irakasleari saioaren inguruko informazioa ematea, besteak beste.

Bestalde, Talde Elkarreragileetan familiaren partaidetzak haurren ikaskuntzan onurak izateaz gain, aniztasunaren onarpenean ere aurrerapausoak ematen laguntzen du, izan ere, gelan parte-hartzen duten kultura ezberdinetako helduei esker, hurrek ezagutza eta esperientzi berriekin harremanetan jartzeko aukera izaten dute, horrelako egoerek haur guztien ikaskuntza prozesua aberastuko dutelarik (INCLUD-ED Consortium, 2011). Baina hurrengan onurak izateaz gain, familiei haiei ere eragin positiboak dakarzkie, izan ere, familiek ikusten eta sentitzen baldin badute haien partaidetzak zerbaiterako balio duela, haien seme-alaben ikaskuntza prozesuaren parte direnaren sententzioa izango dute, eta honen ondotik, ikastetxearen parte sentituko dira. Horrela, haien

partaidetzak gora egingo du eta ikastetxeko eta gelako jardueretan gehiago inplikaturako dira (Tierney, 2002).

2. METODOLOGIA

Ikerkuntza lan honen metodologia esku-hartze bat da, hau da, Talde Elkarreragileen estrategiaren oinarri teorikoa harturik eta lanaren helburua betetzeko Haur Hezkuntzako ikasgela baterako Talde Elkarreragileen diseinua egitea, aplikatzea eta era berean ebaluatzea. Esku-hartze honekin batez ere ikastetxean proposamen berritzailea martxan jarri da, familien partaidetza bultzatu eta sustatu zen bitartean. Hori horrela, haurrak era heterogeneotan taldekatzeak eta era berean familiak ikastetxeko bizitzan inplikatzeko dakartzan onurak aztertu dira.

Zentroan egindako ikerkuntza aplikatu hau saio bakar batean burutu da eta esku-hartzean oinarritutakoa izan arren, behaketa ere bere barne hartu du, berau egiteko hainbat irizpide aintzat hartu zirelarik, taldearen, gelaren eta jardueren ezaugarriak edota haurren eta helduen arteko interakzioak esaterako. Horrela, saio honetatik ateratako emaitzen datuak kontuan hartuta eta goian azaldutako marko teorikoarekin loturak eginez, arrakastazko praktika honek era guztietako onurak dakartzala ondorioztatu dugu.

2.1. Ikerkuntzaren helburuak

Lekeitioko R.M. Azkue ikastolan aurrera eraman dudana arrakastazko hezkuntza praktikarekin lortu nahi izan ditudan helburu nagusiak ondorengo hauek izan dira:

- Ikastetxean familien parte-hartzea sustatzea/bultzatzea
- Familiek ikastetxean parte har dezaten jarduera ezberdinak antolatu eta planifikatu
- Irakasleak motibatu estrategia ezberdinak ezartzera ikastetxearen, familiaren eta komunitatearen arteko integrazioa lortzeko
- Familiei haiek ikastetxean parte hartzeak dakartzan onurez jabetzea
- Baloreetan eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza bultzatzea hezkuntza sektoreen artean

2.2. Ikerkuntza garatzeko prozedura

Talde Elkarreragileen estrategian oinarrituta familien partaidetza bultzatzeko saio bat diseinatu zen, hori gauzatzeko pausu ezberdinak eman zirelarik, horietariko bakoitza ondorengo puntuan azalduta agertuko delarik.

Honetaz gain, lan honen helburua familien partaidetza bultzatzea izanik, Talde Elkarreragileak aurrera eramateko boluntarioak aurkitzea (gurasoak adibidez) oinarritzko pausua izan zen. Honekin batera saioaren prestakuntza era egokian egitea ezinbestekotzat jo genuen, eta honi behar beste denbora eskaini genion, material ezberdina prestatzeak, gelaren antolakuntzak, haurren taldekatzeak ,... lan asko eskatzen baitu. Era berean, momenturo irakaslearekin koordinazioan aritu nintzen, bion iritzi eta ideiak kontuan izanda erabaki egokienak hartzeko.

Bestalde, esku-hartzearen behaketa eta ebaluazioa egiteko bi tresna nagusi erabili nituen, alde batetik txantiloia eta bestetik saioaren eta eztabaida taldearen grabazioa. Saioak iraun zuen bitartean laguntza emateaz eta denborak koordinatzeaz gain, behatzaile lanetan ere aritu nintzen, egoera batzuen inguruko datu esanguratsuenak jasoz. Hori horrela, saioaren ebaluazioa berau bukatutakoan bi guraso, praktiketako ikaslea eta nire artean burutua izan zen.

3. LANAREN GARAPENA

3.1. Ikastetxe eta ikasgelaren ezaugarriak

Familien partaidetza bultzatzeko proposatutako arrakastazko hezkuntza praktika, Lekeitioko R.M. Azkue ikastolan eraman da aurrera. Zentro hau kontzertatua da eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen dira, D eredia baino ez dagoelarik, beraz ume guztiek euskaraz ikasten dute. Haur Hezkuntza espazioaren eta jardueren antolakuntzaren proposamen berritzaile batean oinarrituta dago, hau da, Haur Hezkuntzako eremua eremu librea da, ez dago haurrak mugatzen dituen hormarik, 0-6 urte arteko umeak espazio zabal eta goxo batean elkarrekin dabilta. Bakoitza bere gustuko eta intereseko txokoetan dabil, libreago, autonomoago, adin ezberdinetako haurren arteko ezagutzak elkar irakatsiz, inizatiba landuz eta garrantzitsuena, irribarretsu. Haur Hezkuntzako eremu hau bi solairuk osatzen dute, beheko solairuan 3-6 urte bitarteko haurren erreferentzia eremuak eta

goiko solairuan 0-3 urteko haurren erreferentzia eremuak aurkitzen direlarik. Hau horrela, proposamena 3 urteko gelan eraman da aurrera, taldea 21 umek osatzen dutelarik, 10 mutil eta 11 neskek, eta ez dago behar bereziko haurrik, taldea, bestetik oso heterogeneoa izanik (erritmoa, gaitasunak ...).

3.1.1. Familien partaidetza bultzatzeko prozesua

Familien partaidetza bultzatzeko proposatutako Talde Elkarreragileen estrategia aurrera eramateko ondorengo pausu hauek eman genituen:

Lehenengoz, ikastolako zuzendariarekin bildu eta hari nire asmoaren berri eman nion, honek, nire proposamena praktikan jartzeko baimena eman zidalarik.

Bigarrenez, nire irakasle-tutorearekin bildu eta Talde Elkarreragileak gelan egiteko proposamena luzatu nion, honek ere baiezkoa eman zidalarik.

Hirugarrenez, zuzendari eta irakasle-tutorearen baiezkoarekin, gelako haurren gurasoen baldintzak aintzat hartu eta saiora etor zitezkeen gurasoen zerrenda egin genuen, horretarako ere gelako irakaslearen laguntzaz baliatu nintzelarik. Irakaslearekin hitz egin ondoren, boluntarioak bi guraso, praktiketako ikaslea eta irakasle-tutorea izango zirenaren adostasunera heldu ginen.

Laugarrenez, irakaslearekin saioan aurrera eramango ziren jarduerak pentsatu eta antolatu genituen.

Bosgarrenez, behin partaide posibleak eta jarduerak antolatuta, gurasoei eta beste boluntarioei informazioa azaltzeaz arduratu nintzen eta hau izan zen azken pausua. Horretarako, goizetako harrera unea aprobeztatu nuen, Talde Elkarreragileak dakartzaten onuren inguruan mintzatzeaz gain, haurren atxikimenduaren transferentzian lagunduz.

3.1.2. Saioaren diseinua eta garapena

Talde Elkarreragileak, batez ere Ikas Komunitateetan aurrera eramaten den arrakastazko praktika da eta Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aurrera eraman daitekeena (Ikaskom, s.f.). Talde Elkarreragile hauetan gai ezberdinak landu daitezke, hala nola, matematika, plastika, ... eta gelan momentu horretan lantzen ari garenaren errefortzu bezala erabili daitezke saio hauek, baita hurrei gai berri bat ezagutzera emateko ere.

Saioaren diseinuari dagokionez, Talde Elkarreragileen programazio hau saio bakar baterako egin zen eta Baserriko animalien gaiari amaiera emateko erabilia izan zen, hau da, gaiaren errefortzu bezala. Hori horrela, lehenik eta behin saioan egingo ziren jardueren planifikazioa egiteari ekin genion, betiere haurren interes eta gustuak oinarri hartuta. Behin jarduerak pentsatutakoan hauek aurrera eramateko beharrezko materiala prestatu eta ondoren haurren taldekatzea egin genuen, era heterogeneo batean. Diseinatutako jarduerak, bestetik dinamikoak, entretenigarriak eta laburrak egitea erabaki genuen, haurrek aspertzeko betarik izan ez zezaten. Horrela, ondorengo hauek izan ziren aurrera eraman genituen 4 jarduerak:

1. Jarduera: marakak

Ur-botila hutsei elikagai ezberdinak sartuta (arroza, dilistak, garbantzuak), musika instrumentuak sortu genituen. Jarduera honen helburua zaratarekin esploratzea eta musika eginez aske sentitzea izan zen.

2. Jarduera: maskarak

Animalien (oiloa, katua, txakurra eta astoa) marrazki bat aukeratu, begiak pultsoiarekin zulatu, goma jarri eta animali bihurtuz jolas sinbolikoan aritzeko aukera izan zuten haurrek. Jarduera honen helburua haurrek jolas sinbolikoaren bidez haien emozio eta sentimenduak azalratzea izan zen.

3. Jarduera: horma-irudiak

Bi horma-iruditan, alde batetik baserria eta bestetik oihana, haurrek animalien sailkapena egin zuten, hau da, non bizi den animalia bakoitza. Jarduera honen helburua haurrek etxeko abereen eta oihanekoen arteko sailkapena egitea izan zen.

4. Jarduera: txotxongiloak

Paper-biribilkiei palo bat jarrita, *Bremengo musikarien* ipuinean agertzen ziren animalien txotxongiloak egin genituen. Jarduera honen helburua adierazpen gaitasuna garatzea izan zen.

Bestalde, *saioaren garapenari* dagokionez, Talde Elkarreragileen proposamen hau asteazken goiz batean burutu genuen, gelan bertan. Gela, lau espazio ezberdinetan banatua egon zen, 2 urtekoen erreferentzia eremuan bi txoko (horma-irudiak eta txotxongiloak) eta 3 urtekoen erreferentzia eremuan beste bi txoko (marakak eta maskarak), txoko bakoitzean jarduera bat egin zelarik. Jarduerak burutu ziren eremuetan

21 haur eta 5 heldu egon ginen, 4 heldu jardueren dinamizatzaileran lanetan aritu zirenak eta bestetik ni. Irakasle bezala nire jarrera laguntzan eta behaketan oinarritutakoa izan zen eta zalantzak argitzearen, denborak koordinatzearen ... arduraduna izan nintzen. Saioa bestetik, hiru ataletan banatua egon zen:

- Lehenengo atala (boluntarioei jardueren inguruko informazioa helaraztea):

Goizetako harrera unea aprobetxatu eta partaide izango ziren boluntarioei saioan egingo ziren jardueren inguruko azalpenak eman nizkien, boluntario bakoitzak egin nahi zuen jarduera aukeratzeko gonbitea luzatuz. Horrela, behin heldu bakoitza zein jardueratan egongo zen erabaki ondoren, jarduera bakoitzaren helburua eta gelaren antolamendua azaldu nien. Momentu honek 10 minutuko iraupena izan zuen eta boluntarioei lasaitasuna transmititzen ahalegindu nintzen, jarduera egin bitartean eroso senti zitezten.

- Bigarren atala (saioaren azalpena):

Atal honi 10 bat minutu eskaini genizkion eta eguneroko errutinaren ondoren egin genuen, haur zein helduei saioaren inguruko azalpen ezberdinak eman nizkielarik, hau da, zer diren Talde Elkarreragileak, egingo genituen jarduerak, heldu bakoitza zein jardueraren arduraduna izango zen etab. Alderdi honi garrantzia handia eman nion, izan ere, oso garrantzitsua iruditu zitzaidan momentu honetan hurrengan saioaren inguruan motibazioa eta interesa sortzea, banekielako honek eragina izango zuela haiek jardueren aurrean izango zuten jarreran.

- Hirugarren atala (saioa bera):

Haurrak taldekatuta eta jardueretako helduak prest zeudela ikusi nuenean saioari hasiera eman genion, iraupena 60 minututakoa izan zelarik hortaz, jarduera bakoitzak 15 minutu iraun zituen. Atal honetan ezinbestekoa izan zen helduaren lana, bera izan baitzen jarduera dinamizatzeaz eta hurren artean eman ziren interakzioak aberatsak eta errespetuan oinarritutakoak izateaz arduratu zena.

3.1.3. Eztabaida taldea Talde Elkarreragileetan parte hartu duten boluntarioekin

Saioari bukaera emandakoan Talde Elkarreragileetan parte hartu zuten boluntarioekin balorazio bilera egin zen “*gurasoen txokoa*”, bertan partaideek nirekin batera haien iritziak azaltzeko aukera izan zutelarik. Eztabaida honetan 4 helduk parte hartu genuen, saioan dinamizatzaileran lanetan aritu ziren bi gurasok, praktiketako ikasleak eta nik hain

zuzen ere. Atal honek 15 minututako iraupena izan zuen eta oso garrantzitsua izan zen, saioan egondako gorabeherak eta akatsak azaleratzeko momentua izan baitzen.

4. ESKU-HARTZEAREN EMAITZAK ETA BALORAZIOA

Puntu honetan saioan sortutako gorabehera guztien inguruko datu eta xehetasunak azaleratuko dira eta horretarako hainbat momentutan boluntarioek egindako aipu ezberdinez baliatuko naiz.

4.1. Behaketaren emaitzak

Saioak iraun zuen bitartean gelan egon zen giroa ezin hobea izan zen eta hori hein handi batean jardueretan *dinamizatzaile* lanetan aritu ziren helduei esker izan zen. Hauek momenturo aritu ziren haurren partaidetza bultzatzen, baita jarduerarekiko interesa pizten ere haurrengan, horretarako hala nola galdera edo ez-hitzezko baliabide ezberdinez baliatuz. Esaterako era honetan eman zion hasiera maraken jarduerari bertan dinamizatzaile lanetan aritu zen helduak “begira hemen daukagu botilak musika egiteko [...], orduan orain, aukeratu nahi duzuen elikagaia, zabaldu botilak eta barrura bota, bai? (Ama 1, 0:08:30m, I grabazioa). Beste era honetan aldiz, txotxongiloen arduraduna izan zen helduak “begiratu zer daukadan hemen, zer da? badakizue? (txotxongiloa seinalatuz), nahi duzue egin? (P.I., 0:15:42m, II grabazioa). Gainera, haurren erritmoa errespetatu zuten, eta haien arabera eta haiekin batera jardun zuten, oro har, oso ondo bete zuten haien lana.

Bestetik, *haurren* partaidetzari dagokionez, orokorrean nahiko orekatua izan zen eta gustura aritu ziren jarduera guztietan. Horrez gain, hurrek gozatu egin zutela dirudi, haien eguneroko errutinatik atera eta gela beste modu batera antolatzeak eta komunitateko hainbat kide haiekin egotea haientzat zerbait berria izan zelako. Era berean, planteatutako jarduerak ezagunak izan arren, entretenigarriak eta manipulatzeko aukera ematen zutenak izan ziren. Gainera, jarduerak errazak izan zirenez, hurrek haien kabuz egiteko aukera izan zuten, era horretan autonomia sustatuz.

Honetaz gain, hurrek haien artean eta helduekin izan zituzten *interakzioak* erabat aberatsak izan ziren, ezinbestekoa haien ikaskuntza arrakastaz bete dadin. Halaber, hurrak momenturo aritu ziren elkarlanean, laguntza jasoz eta era berean eskainiz. Horrez gain, helduek egiten zizkieten galderen eta haiek emandako erantzunen bidez

elkarrizketa interesgarriak sortu ziren haien artean, horren adibide da horma-irudiaren arduradunaren eta haur baten artean sortu zen elkarrizketa hau (0:26:45m, I grabazioa):

-Haurra: “Nik begiratu!”

-Ama 2: “Zuk zein itsatsi duzu?”

-Haurra: “Lehoia”

-Ama 2: “Eta lehoia non egoten da, baserrian?”

-Haurra: “Ez, oihanean!”

-Ama 2: “Zelako trebea zaren!”

Haurren taldekatzeari dagokionez, hauek oso orekatuak izan ziren eta ez zen inolako alderik egon talde baten eta beste baten artean. Gainera, modu heterogeneoan taldekatzean, haurren erritmo eta gaitasunak kontuan hartzeaz gain haurrek haien artean izaten dituzten jarrerak, harremanak eta haien portaerak ere kontuan izan genituen. Oro har haurrak haiei egokitu zitzairen taldearekin gustura egon zirenez, jardueretan ere eroso sentitu ziren.

Bestalde, behaketak erakutsi duena aintzat hartuz, *espazioaren antolaketak* zerikusi handia izan zuen saioak izandako arrakastarekin, izan ere, txokoak nahiko sakabanatuta egoterakoan, haurrak haien jardueran jarri zuten arrera guztia. *Denborari* dagokionez ere, ondo kontrolatuta egon zen, haurrek 3 urteko dituztela aintzat hartuta, jarduerak nahiko laburrak izan zirelako, haiek aspertzeko denborarik izan ez zezaten. Hau guztia kontuan hartuta, esan daiteke ez zela alderdi negatiborik egon saioak iraun zuen bitartean eta arrakasta izan zuela, haur, guraso eta orokorrean boluntario guztiak oso eroso eta parte-hartzaile agertu zirelako momenturo. Era berean, hasieran planteatutako helburuak ere lortu ziren, proposamen berritzaile honetan planteatutako jardueren bidez ikastetxean familien partaidetza sustatzea lortu baitzen.

4.2. Saioaren ebaluazioaren datu garrantzitsuenak

Saioan parte hartu zuten *boluntarioekin* izandako eztabaidan ateratako ondorioak erabat positiboak izan ziren. Dinamizatzailerek haien burua haurren artean oso ondo eta eroso ikusi zutela nabarmendu zuten eta asko gustatu zitzaizela horrelako saio batean parte hartu izana. Gainera, helduek haurren behar, interes eta erritmoetara moldatu zirela ere aipatu zuten, hala zioen horma-irudien arduraduna izan zenak, “nire kasuan oihaneko eta baserriko animaliak bakoitzak bi jartzen izan ditu, bat baserrikoa, bat oihanekoa, baina hori lehenengo taldearekin. Azken taldearekin bakoitzak aukeratzen izan du bat

[...] ni azkenean haien erritmora egokitu naiz” (Ama 2, 0:03:14m, IV grabazioa). Era berean, boluntarioak oso pozik agertu ziren lortutako emaitzarekin, hurrekin gustura aritzeaz gain haurrak ere haiekin gustura egon zirenen sententzioarekin gelditu zirelako, hortaz, beste saio batean gustura parte hartuko zutela nabarmendu zuten. Honen haritik, helduek ezinbestekotzat jo zuten familien eta komunitatearen inplikazioa ikastetxeetan eta horrelako egoerak eman daitezkeen instituzio biek egin behar dutela esfortzua nabarmendu zuten, izan ere, “haurrak beraien irakaslea ez den beste komunitateko kide batzuekin egoteak errutinatik ateratzen laguntzen die” (2. Eranskina¹).

Bestalde, eztabaidan azalera atera zen beste gai bat *haurrek* jardueren aurrean izan zuten jarrera izan zen. Boluntarioen iritziz haurrak orokorrean motibatuta eta jardueretan parte-hartzaile aritu zirela nabarmendu zuten, horrela zioen maraken arduraduna izan zen helduak “nire jardueran haurrak oso ondo egon dira, zarata eginez, elikagaiak ukitzen” (Ama 1, 0:05:51m, IV grabazioa) eta bestetik maskaren arduraduna izan zen gelako irakasleak “ordubete horrela egotea [...] primerakoa izan da, oso ondo egon dira denak” (Irak., 0:06:57m, IV grabazioa). Gainera, haurren taldeak ere oso orekatuta egon zirela aipatu zuten partaideek eta hurrek izandako jarrera onak haiei ere lana erraztu ziela, halaber “bat egoten izan da beti taldean, ez bazaude pixka bat bere gainean agian eskapatu edo egiten izan dena [...] talde bakoitzean gutxi gora-behera bat egoten izan da horrela [...] bat edo bat ere ez” (Ama 2, 0:03:37m, IV grabazioa). Era berean, haur eta helduen artean eman ziren *interakzioak* ere erabat aberatsak eta errespetuan oinarritutakoak izan zirela goraipatu zuten saioaren partaide izan ziren boluntarioek.

Honetaz gain eta *jardueretan* zentratuz, hauek oso errazak, arinak eta haurren adinera egokitutakoak izan zirela goraipatu zuten helduek. Bestetik, maraketan materialarekin egon zen arazotxoak izan zen boluntarioen aburuz jardueren balorazioko puntu negatibo bakarra, hori esan zuen maraken arduraduna izan zen helduak “azkenean gometxak ez ziren botiletan itsasten, orduan beste zerbait, ez dakit zer jarri daitekeen, baina agian pintatzeko zerbait edo” (Ama 1, 0:04:55m, IV grabazioa). Halaber, haurrak gusturen jarduera honetan egon zirela aipatu zuten, manipulatzeko eta zaratarekin esperimentatzeko aukera izan zutela goraipatuz. Materialarekin jarraituz esan, kolaren gaia ere aipatu zutela helduek, “materialaren aldetik agian kola gutxi egon da eta

¹ 2.Eranskina: 1.boluntarioak saioaren inguruan betetako balorazio txantiloia

haurrak zain egon behar izan dira, baina ondo konpontzen izan dira” (P.I., 0:04:34m, IV grabazioa). Hala ere hau alderdi positibotzat jo zuten, haurrak elkarri errespetatuz, txandak itxaronez eta elkarri lagunduz aritu zirelako.

Bestetik, boluntarioek *jardueren denbora* oso ondo koordinatuta egon zela ere nabarmendu zuten, horrela zioelarik dinamizatzailerik batek “ondo egon dena denboraren aldetik, boluntario bat ez dela beste bati itxaroten egon, nahiko jarraitua izan da dena” (P.I., 0:07:25m, IV grabazioa). Horretaz gain, partaideek *gelaren antolakuntza* egokia izan zela azpimarratu zuten, eta horrek zerikusirik handia izan zuela saioak izandako arrakastan, izan ere Haur Hezkuntzako bi eremu ezberdinetan banatuta egon ziren txokoak, hau da, bi jarduera 3 urtekoen erreferentzia eremuan eta beste bi jarduera 2 urtekoen erreferentzia eremuan. Hori horrela, “haurrak taldeka banatu direnean bakoitza bere jardueran kontzentratuta egon da” (Ama 2, 0:08:24m, IV grabazioa).

Atal honi amaiera emateko esan, boluntarioek saioan zehar eta ondoren nik haiekin izan nuen jarrera ere goraiatu zutela, horrela zioelarik dinamizatzailerik lanetan aritu zen heldu batek “irakaslearen arreta gurasoekiko oso ona izan da” (3. Eranskina²).

4.3. Ikerkuntzaren gorabeherak

Saioak iraun bitartean gorabehera ezberdinekin egin genuen topo, zorronez erraz eta momentuan konpontzekoak denak. Materialarekin arazo txikiak izan genituen, alde batetik txotxongiloen jardueran kola gutxi zegoelako eta haurrak elkarri itxaroten egon behar izan zirelako eta bestetik, maraken jardueran materialaren aldetik dena ondo egon arren, gometak ez zirelako ur-botiletan itsasten, askatu egiten baitziren. Hala ere, material hori beste batengatik ordezkatu eta jarduerak inolako arazorik gabe egin zuen aurrera. Horrelako momentuek erakusten dute irakasleak egoera ezberdinen aurrean erantzun egokia ematen jakin behar duela.

Bestetik, jardueren errotazioetan haurrak pixka bat desorekatuta ibili ziren momentu batzuetan, ez zutelako jakin ze jardueretara joan behar ziren, hala eta guztiz ere, momenturo izan zuten nire laguntza eta ez zen oztopo izan saioa aurrera eramaterako orduan. Bestalde, saioaren momentu batean talde baten ardura hartu behar izan nuen (horma-irudiak), bertako helduak ustekabeko bat izan zuelako, hala ere, 5 minutuko kontua izan zen. Oro har, denak espero bezain ondo irten zuen eta haur eta boluntarioek

² 3.Eranskina: 2.boluntarioak saioaren inguruan betetako balorazio txantiloia

jarrera ezin hobea izan zuten jardueren eta orokorrean saioan zehar eman ziren egoera ezberdinen aurrean, ezinbestekoa saioa arrakastatsua izateko.

5. ONDORIOAK

Behin eta berriz hitz egin dugu inklusioaren gaiaz lan idatzi honetan, baina inklusioa Stainback, W. eta Stainback, S. (1992), Echeita (2011), edota Ainscow-k (2011) prozesua dela diote, amaierarik ez duen prozesua. Horrela, eskola inklusiboak sortzeko bide horretan ezinbestekoa izango da “la existencia de una cultura organizativa que contemple la diversidad del alumnado de manera positiva” (Ainscow, 2012:49). Hori horrela aniztasunari erantzuten ez dioten jarrerak eta mugak gainditu eta apurtzeko beharrean gaude, Ainscow-k (2012) aipatzen duen aniztasuna aberastasuna baita eta hezkuntza haur guztiek izan beharko luketen eskubidea.

Honetaz gain, ikus daiteke familiaren partaidetza ikastetxeetan ez dela batere erraza eta zoritxarrez gutxi ematen dena gure hurbileko eremuan. Hala ere, “las mejores escuelas siempre cuentan con padres que las apoyan y se encuentran integradas en sus barrios, lo que revalida el concepto de la comunidad educativa” (García-Bacete, 2003:427). Hortaz, eta ikerketa askotako emaitzek (INCLUD-ED, 2006-2011) erakutsi duten bezala, komunitateko eta familiako kideak ikastetxeetan inplikatzek era guztietako onurak dakartzala ikusita, hauen partaidetza bultzatzea gaur egungo ikastetxeek duten erronketariko bat dela esan genezake, aurre egin beharreko erronka. Era berean, etorkizuneko irakasle izango garen aldetik gu izan behar gara egungo egoera aldatu eta eskoletan praktika inklusibo gehiago martxan jarriz komunitateko eta familiako kideak ikastetxeetan inplikatzek lortu behar dugunok, era honetan haur guztien ikaskuntza hobetu eta eskola arrakasta bermatuz.

Arrakastazko praktika inklusibo horietariko bat lan idatzi honetan azalera diren Talde Elkarreragileak izan daitezke. Haurrak era heterogeneo horretan taldekatzeak era guztietako emaitzak hobetzen dituela agerian geratu da dokumentu honetan eta baita egin diren ikerketa ezberdinetan ere (INCLUD-ED, 2006-2011). Berdinen arteko ikaskuntza handitzeaz eta berdintasunean oinarritutako harremanak sortzeaz gain, haurrek haien adinekoekin eta saioan parte-hartzen duten helduekin interakzioan aritzeko aukerak izaten dituzte, haien pentsamendua gutxika garatuz. Gainera, lan honetan zehar argi geratu da familiak ikastetxeetan inplikatzek era guztietako onurak

dakartzala eta horrelako egoerak ematea posible dela, horretarako dauden bide eta estrategia ezberdinak planteatuz, esaterako ezagutzera eman diren Talde Elkarreragileak. Era berean saioan parte-hartzen duten boluntarioen rola oso garrantzitsua bihurtzen da interakzio horiek aberatsak izan daitezen. Horrez gain, eta INCLUD-ED Consortium-ek (2011) nabarmentzen duen bezala, jakina da komunitatea gizartearen isla dela eta ondorioz, gizartean dagoen aniztasuna ematen dute ezagutzera, askotan eskolek bere curriculumean kontuan izaten ez dutena.

Bukatzeko, eta guztiok elkarrekin lanean aritzeak dakartzan onurak ikusirik, has gaitzen oztopoei aurre egiten eta hauek gainditzeko, ikastetxe, familia eta komunitateko kideok elkarlanean arituz ezberdintasunak berdintasun bihurtzea posible baita.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Ainscow, M. (2012). Haciendo que las escuelas sean más inclusivas: lecciones a partir del análisis de la investigación internacional. (Making schools more inclusive: lessons from international research). *Revista Educación Inclusiva*, 5(1), 39-49
- Arnaiz, P. (1996). Las escuelas son para todos. *Siglo cero*, 27(2), 25-34
- Aubert, A.; Flecha, A.; García, C.; Flecha, R eta Racionero, S. (2008). *Aprendizaje dialógico en la Sociedad de la Información*. Bartzelona: Hipatia
- Berruezo, P.P. (2006). Educación inclusiva en las escuelas canadienses. Una mirada desde la perspectiva española. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 20(2), 179-207
- Booth, T.; Ainscow, M. (2002). *Guía para la evaluación y mejora de la educación inclusiva (Index for inclusion): desarrollando el aprendizaje y la participación en los centros educativos*. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila
- Echeita, G.; Ainscow, M. (2011). *La educación inclusiva como derecho. Marco de referencia y pautas de acción para el desarrollo de una revolución pendiente*. Ponencia del II Congreso Iberoamericano de Síndrome de Down. Granada.
- Eusko Jaurlaritza. (2012). *Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa*. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa. Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila
- Flecha, A., García, R., Gómez, A. eta Latorre, A. (2009). Participación en escuelas de éxito: una investigación comunicativa del proyecto Includ-ed. *Revista: Cultura y Educación: Culture and Education*, 21(2), 183-196
- García-Bacete, F.J. (2003). Las relaciones escuela-familia: un reto educativo. *Infancia y aprendizaje*, 26 (4), 425-437
- Garreta, J. (2010). La participación de las familias en la escuela. In, Feito, R. (koordinatzailea), *Sociología de la educación secundaria* (pp. 47-65). Bartzelona: GRAO
- Ikaskom (s.f.). *Grupos interactivos*. Berreskuratua 2015eko apirilaren 13an, hemendik <https://ikaskom.wikispaces.com/GRUPOS+INTERACTIVOS>

- INCLUD-ED Consortium. (2011). *Actuaciones de éxito en las escuelas europeas*. Madrid: Instituto de Formación del Profesorado, Investigación e Innovación Educativa (IFIIE). Ministerio de Educación
- Lekeitioko eskola publikoa. (2008). *Eskola gida*. Gizaburuaga:kiñuka
- Martínez-González, R. A. (1996). *Familia y educación*. Lan honetan: García-Bacete, F.J. (2003). Las relaciones escuela-familia: un reto educativo. *Infancia y aprendizaje*, 26 (4), 425-437
- Mercer, N. (2001). *Palabras y mentes: como usamos el lenguaje para pensar juntos*. Barcelona: Paidós
- Stainback, S.; Stainback, W. (1992). *Curriculum Considerations in Inclusive Classrooms*. Lan honetan: Arnaiz, P (1996). Las escuelas son para todos. *Siglo cero*, 27(2), 25-34
- Tierney, W. (2002). Parents and Families in Precollege Preparation: The Lack of Connection between Research and Practice. *Educational Policy*, 16(4), 588-606
- UNESCO. (1994). *Informe Final. Conferencia mundial sobre necesidades educativas especiales: acceso y calidad*. Madrid: UNESCO/Ministerio de Educación y Ciencia.
- UNESCO. (2004). *Temario abierto sobre educación inclusiva*. Santiago de Chile: UNESCO
- UNESCO. (2005). *Guidelines for inclusion: Ensuring Access to Education for All*. París: UNESCO
- Valls, R; Kyriakides, L. (2013). The power of Interactive Groups: how diversity of adults volunteering in classroom groups can promote inclusion and success for children of vulnerable minority ethnic populations. *Cambridge Journal of Education*, 43(1), 17-33
- Vygotsky, L. S. (1996). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Barcelona: Crítica.
- Zugazaga, A; Uribe, A; Rodríguez, A eta Aróstegui, I. (2013). Grupos interactivos al final de la etapa. *Aula de infantil* 70, 18-23.